

Anrasate

P R E S S

1997ko
otsailak 7
350. zenb.

IRITZIA
JUAN RAMON
GARAI

ELKARRIZKETA
MOHAMED
SALEM

IKUSPEGIA
XABIER
LETONA

30 GALDERATAN
JOSE HILARIO
FUENTES

KIROLAK
FERNANDO
GARCIA

Ez zaitetz zeu izan!





PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- SOLARIUMA (DUTXAREKIN)

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

12 SESIO: LEHEN: ~~36.000 PTA.~~ ORAIN: 30.000 PTA.

Eskaintza baliogarria martxoaren 31a arte

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.



Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE



ARGI PLASTIC



- PVC eta aluminioan egindako leihoak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean.
- Zerbitzu profesionalena.

**Eska ezazu
aurrekontua
konpromezu
barik!**

Tailerra eta bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabiloia • Tel.: 77 11 30 • ARRASATE

Arrasate Press erosi behar?

Internet eta sare telemati-koen sasoi hauetan badakit idatzi hau korreo elektronikoz bidaliko banu, Andonik berehala jasoko lukeela, goizero Arritxurekin autobusean abiatu ondoren, unibertsitatera heldu, ordenagailua piztu eta posta-kutxa zer dagoen begiratzan baitu fin-fin. Baina beno, oraingoan agurra modu tradizio-nalagoan doakie Edinburgheko *bibidore* horiei. Jakina, askoz beranduago iritsiko zaie baina bere xarma ere izango duelakoan nago.

Izan ere, ARRASATE PRESSEko egile eta irakurleok, ezin duzue imajinatu -akaso atzerrian egondakoek bai- aldizkari honek zer mugimendu izaten duen eskuz-esku pasatzerakoan. "Hi heldu jatak azken zenbakixe, alkatie



Xabier Letona

atxilotu juek eta Jose Luis eta Aintzane ezkondu dittuk...", "ba erueidek gero tabernara, baina ahaztu barik eh?, joan zan astien be ahaztu ein hauan ekartie eta"... Eta Jabier eskolako atzerritarrekin, bere ingeles geldoan: "Yes, this is the magazine from our town,

Arrasate, in the Basque Country" (Bai, hau gure herriko aldizkaria da, Arrasate, Euskal Herrian). Beraz, propagandarik ez zaio falta izan Arrasate Pressi. Eta orain, maketa txukun honekin, zeresanik ez, lumak harrotuta ibiliko dira Edinburgheko mondrauetarrok.

Atzerriko kontuekin jardun dut behar bada han Arrasate Press jasotzea beste modu batean bizi delako. Baina esan gura nuen dagoeneko ohitu garena

barikueko ARRASATE PRESS gure etxean jasotzen eta agian sarritan ez garena konturatzen eskuarte dugu. Eta noizbait -diru falta dela eta, kaleratuko ez balitz? Akaso exageratzen ari naiz, baina beharbada ez dut horrenbeste exageratuko epe ertainean irakurleak aldizkaria erosi behar duela -edo zerbait ordaindu- esango banu.

Duela gutxi aldizkari garentari irakurri nion dirulaguntzak jaitsi egin direla, eta dirulaguntzen joera ikusita, beharbada ez nabil errealitatekin urrin. Beste leku batzuetan hasi dira ordaintzen. Eta bestetik, guztia erosten den gizarte honetan, zergatik ez genuke bada ARRASATE PRESS ere erosi beharko?

Horrela jarraitzen badu primeran, jakina, bere hasierako izaerarekin jarraituko lukeelako eta arrasatearrok euskaraz informatzearen funtzioa beteko lukeelako. Baina beno, joan gaitezen pentsatzen beste horretan ere, epe ertainera begira herri aldizkariak ere irakurlearen diru hori beharrezkoa izango dutelakoan nago eta.

"Guztia erosten den gizarte honetan, zergatik ez genuke bada Arrasate Press ere erosi beharko?"

350. zenbaki honetan

1997ko otailaren 7an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen.....	10/12	Kulturaren txokoa.....	25
Irakurlea idazle.....	6	Txutxumutxuak.....	14/15	Azoka plaza.....	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia.....	17/19	Baserriko lanak.....	31
Astearen errepasoa.....	9	Kirolak jokoan.....	20/22	Foto zaharra.....	34


Ikuspegia
Xabier Letona.....**3**

Euren ikuspuntutik
Jose Ramon Garai.....**8**

Hogeita hamar galderatan
Jose Hilario Fuentes.....**30**

Aurrez aurre
Mohamed Salem Daha....**26/27**

Asteko gaia
Sexualitateaz hitz egiteko espazio berria.....**17/19**



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otilora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardoko Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 79 02 26). **Diselnuia:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salia, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbiaren, Fidi Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Birginitia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSE ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Imanol Ibañez.

7

ostirala

■ ZINEA

La Celestina Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ BERTSO AFARIA

Gesalibarko Santa Ageda jaien egitarauen barruan, Mañukorta eta Zeberio bertsolariekin bertso afaria 8.30etan Gesalibarko elkar-teen. Ondoren musika *Boston* taldearekin.

8

larunbata

■ ZINEA

Napoleon, el perrito aventurero Alai zineman 5etan. *Sleepers* 7.30etan eta 10etan.

■ PLAY BACK JAIALDIA

Sabado Regular VIII. Play Back Jaialdia Amaia antzokian gaueko 10.30etan.

■ AL ANDALUSEN PLAY BACK

Al Andalusek antolatuta, *Carnaval 97 Play Back* jaialdia 11etan bere egoitzan.

■ ROCK-A GESALIBARREN

11etan *Txusma* eta *Altar* taldeen kontzertua.

9

igandea

■ ZINEA

Napoleon, el perrito aventurero Alai zineman 5etan. *Sleepers* 7.30etan eta 10etan.

■ HARATUZTEAK

Eguzki taldearekin dantzaldia arratsaldeko 7etan Seber Altuben. Sezen suzkoa 8.30etan.

■ GESALIBARKO JAIK

12etan meza nagusia. Ordu batean luntxa eta 3.30etan mus txapelketa.

11

asteartea

■ HARATUZTEAK

Txikientzat Txuflo, Panplina eta Txufino pailazoen emanaldia Seber Altube plazan arratsaldeko 5etan, ordu berean txarangaren irteera. Auskalo taldearekin kale animazioa Herriko Plazan 6etan. Arrasateko Erraldoi eta Kili-kien kalejira 7etan. Bulunba taldearekin dantzaldia Herriko Plazan 8etatik 9ak arte eta 10.30etatik aurrera. Sardina-ren Hileta erdialdeko kaleetatik gaueko 10.30etatik aurrera. Ondoren Herriko Plazan erre egingo da. Mozorro lehiketaren sariak gaueko 12etan Herriko plazan.

■ ZINEA

Sleepers Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

10

astelehena

■ ZINEA

Sleepers Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ BILERA INFORMATIBOA

HEZIBIDEk antolatuta, Derrigorrezko Hezkuntzaren matrikulazioari buruzko *Zatoz Ezagutzera* kanpainaren barruan. Umezaintza ikastolan 17.45etan euskaraz eta 19.00tan erdaraz.

■ HARATUZTE KONTZERTUA

Arrasate Musikalen eskutik Haratuzte Kontzertua akademiako areto nagusian arratsaldeko 7etan.

12

asteazkena

■ EUSKARAOKEA

Euskaraokea Herriko Plazan arratsaldeko 5.30etan.

■ HITZALDIAK

Emakume Baserritarren Elkarteak antolatuta, baserriko emakumearen funtzioari buruz. Arratsaldeko 3.30etan Udalako Ingurugiro Eskolan, eta iluntzeko 7.30etan Gara-gartzako auzoetxean.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Zugan pentsatuz, laguntzeko prest

- Plantila bereziak, behar bakoitzak berea.
- Aluminiozko gurpil aulkiak; arinak, tolesgarriak eta elektrikoak.
- Ohe artikulatuak, koltxoi bereziak.

Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

BAKAILO ETXEA



- Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailoan espezializatua
- Bakailo kazoletak prestatzen dira (bakailo gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 79 93 07

Haratuzteetan zure ilea ere mozorrotu!

Comercial
ARPE

Kontzeziño, 4 behea • Tel.: 79 78 09



13 osteguna

■ ZINEA

Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ EUSKARAOKEA

Euskaraokea Herriko Plazan arratsaldeko 5.30etan.

■ HITZALDIAK

Emakume Baserritarren Elkartek antolatuta. Arratsaldeko 3.30etan Gesalibar-ko lokaletan, eta iluntzeko 7.30etan Bedoñako Auzoetxean.

■ BILERA INFORMATIBOA

HEZIBIDEk antolatuta, Derrigorrezko Hezkuntzaren matrikulazioari buruzko bilera informatiboa Ferixalekuan 17.45etan euskaraz eta 19.00tan erdaraz.

■ ZINE KLUBA

Kalifornia Amaia antzokian gaueko 9.30etan.



Alkoholiko Anonimoak

Alkoholarekin arazoak daukazu? Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 61 93 38

■ EUSKAL DANTZEN IKASTAROA

Arrasateko Udalak antolatuta, Lore Gazteak taldearen eskutik euskal dantzen ikastaroa antolatu da. Bi maila daude: 10-14 urte bitartekoendako eta 15 urtetik gorakoendako. 10-14 urte bitartekoendako eskolek otsailaren 19tik San Juanak arte iraungo dute eta 15 urtetik gorakoendak martxoaren 14tik San Juanak arte. Matrikula 1.000 ptakoa da eta izen ematea Gazte Bulegoan egin behar da edo 77 00 65 telefonoan. Bikote mixtoek lehentasuna izango dute.

■ JAIK GESALIBARREN

Gaur hasi eta igandera arte Gesalibarren Santa Ageda jaiak ospatuko dituzte. Egun handiena biharkoa izango da: Goizeko 11etan haurrendako jolasak, 12etan auzoko hildakoen aldeko meza, 2.30etan Santa Ageda kantuan aterako da auzoko koroa. 9etan afaria eta ondoren Txinpartarekin dantzaldia izango dira. Gauean Txusma eta Altar taldeekin rock kontzertua.

■ KORRIKA KULTURALA AEKren Korrika

Kulturala egitarauaren barruan, Astigarragako sagardotegian afaria eta euskal jaialdia antolatu da otsailaren 22rako. Egun horretan arratsaldez euskal produktuen azoka, hankapaloak, trikitixa eta txalapartariak izango dira, ondoren afaria. Afalostean Gozategi taldearekin erromeria. Afariaren prezioa 2.500 pta eta autobusarena 1.000. Izenematea AEKn egin

behar da otsailaren 14a baino lehen. Tel. 77 03 69.

■ MANOS UNIDASen KANPAINA

Otsailaren 8an eta 9an diru bilketa egingo du Manos Unidas erakundeak "Gosearen Aurkako Kanpaina"ren barne. Dirua biltzeko etxetara sobreak bidaliko dira domekan parrokiara eramateko. Nahi duenak Euskadiko Kutxan, Kutxan, BBVn edo Banco

Santanderren Manos Unidasek duen kontu korrontean sar dezake dirua.

■ PLAY BACK JAIALDIA

SUDCek antolatuta, bihar gaueko 10.30etan urteroko Play Back jaialdia Amaia antzokian. Sarrerak Eresi, Monte eta Xaramelan daude salgai 500 ptan. Takilan bihar gaueko 9.30etatik aurrera salduko dira.



■ ARGAZKI RALLYA

SUDC batzordeak Udalaren laguntzarekin Haratuzteetako Argazki Rallya antolatu du. Parte hartu nahi dutenek otsailaren 7an eta 8an jaso ahal izango dituzte karreteak Juanma, Oain, Ikatz eta Epelde argazki dendetan. Karreteak berriz, otsailaren 12an entregatu behar dira denda kolaboratzaileetan. Bildumarik onenaren saria 25.000 ptakoa da; argazkirik onenarena 15.000koa; bigarren bildumaren onenarena 10.000koa eta Kajoi tabernak ematen duen Gazteen Saria 5.000koa.

Karreteak otsailaren 7an eta 8an jaso daitezke ohiko dendetan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 7

- Gaueko 10ak arte: Morales, San Andres.
- Gauez: Mozos, Bergara.

Larunbata 8

- Gaueko 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
- Gauez: Camacho, Bergara.

Igandea 9

- Gaueko 10ak arte: Español, Iturriotz.
- Gauez: Camacho, Bergara.

Astelehena 10

- Gaueko 10ak arte: Corcuera, Musakola.
- Gauez: Puy, Bergara.

Asteartea 11

- Gaueko 10ak arte: Irizar, Erguin.
- Gauez: Guallar, Bergara.

Asteazkena 12

- Gaueko 10ak arte: Ameza, Santamaina.
- Gauez: Estella, Bergara.

Osteguna 13

- Gaueko 10ak arte: Ruiz, Maala.
- Gauez: Mozos, Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

- Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
- Iguatorialdea 79 05 00
- Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 79 39 00
- (emakumeak) 79 44 11
- Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze Gorria

- Bergara 76 55 76

DYA

- Arizuola 76 62 91

Anbulatorioak

- Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
- Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 77 03 46
- Espezialitateak 77 05 78
- 77 12 64
- Oñati 78 08 52
- Eskoriatza 79 98 58
- Aretxabaleta 79 74 58
- Aramaiio (945) 45 51 16

Anbulantziak

- Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa

- Oñati 78 04 11
- Bergara 76 14 69
- Arrasate 79 14 39
- Aretxabaleta 79 10 52
- Eskoriatza 088

Ertzaintza

- Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak

- Udal taldea 79 09 00
- Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
- Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

- Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
- Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
- Gasa 900 40 05 23
- 79 78 44
- 79 76 78

Garraioak

- Taxiak 79 12 22
- PESA 79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

- Iturbide Egoitza 79 72 11
- Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

- KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia

- Monterron 77 01 05

Irratia

- Arrasate Irratia 79 58 77

PIKETEEI

Alejandro Altuna S.A.ko langileak ohar informatibo honen bidez 97-1-28an piketeak, gure lantegira atea bortxatuz sartu ondoren eta mehatxuen bidez egun horretarako greba deialdira batzeko derrigortu araziz izan zuten jokabidea deitoratzen dugu.

Agian giro sindikalean ez da ondo ulertuko Alejandro Altunan, bai barne harreman, bai informazio, bai partaidetza mailan dagoen egoera berezia. Alabaina, zin egiten dugu gure kolektiboan inguruko giza-lanen arazokiko sentsibilitate handia dagoela eta hori dela eta 97-1-28an bezalako egoera berezien aurrean eguneratu ditugula gure barne-informazio sistemak.

Beraz Alejandro Altunako langileak aurrerantzean gehiengoz eta demokratikoki hartzen ditugun erabakiak errespetatuak izatea espero dugu.

Alejandro Altunako langileak

ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA ARRASATEN

Lan hau burutzen 15 urte baino gehiago pasa arren, 30 emakume inguruk, lana gal dezakete, edo bestela soldatetan %32ko murrizketa izan. Erabaki hau Udalbatzak hartu zuen pasa den urtarilaren 31n.

Etkez-etxeako zerbitzua 1982. urtean jarri zen martxan gure herrian. Langile hauek, lan egoera ilegal batean agureak zaintzen arituzien Udalaren zerbitzura: lan kontratu eta Gizarte Segurantzaren barik. Zazpi urteren buruan, Udalak zerbitzu hau udalekotu beharrean, Ondasun elkarte bat osatzera behartu zituen. *Bazain* izena hartu zuen enpresak, eta 1991. urtean deialdi publikoan aukeratu izan zen nahiz eta merkeena ez izan. 5 urte iragan dira eta Udalak deialdi publiko berri bat egin du, baina oraingo honetan Goiz Argi enpresa (merkeena) aukeratu dute. Langileen orduko kostua nabari jaisten da, 950 pta. orduko izatetik 650 pta. izatera. Udalbatzak, Bazainekin duen kontratua martxoaren 31 arte luzatzea erabaki zuen. Nere ustez, epe hau egin diren injustiziaz konpontzeko erabili behar-ko lukete.

Bidezkoa den irtenbide bat egon daiteke, benetan borondate politikoa existitzen bada.

Benefiziaroen eskubidea, adinen ezaugarriak kontuan

izanik, eta honekin batera langilegoaren artean sortutako harremanak, beraien lan betetzen jarraritzea gomendatzen dute.

Emakume hauek ezin dute lanpostua galdu, ezta zerbitzua jasotzen dutenek ere emakume hauek galdu. Baina honek ez du esan nahi soldatetan murrizketarik izan behar dutenik.

Udalak ez ohiko den kreditu bat eskain dezake, aurrera begira emakume hauek lanean jarrai dezaten, eta era berean hauen soldatetan dagoen diferentziari aurre egin. 1991. urtean horrela egin zuen.

Juan Ramon Garai

Zuzenketa

Joan den ostiraleko zenbakian, *Txutxumutxuak* sailean, Meatzereko zozketa baten zenbakiaren berri gaizki eman genuen. Zenbaki saritua ez da 459a, 495a baizik.

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral
Setatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

Zer egin behar duzu haratuzteetan?



Monse Zurbano
Langilea
(28 urte)

Martitzenean ez dut irten-go, hurrengo egunean lana egin behar dut eta. Hala ere berdin zait, azken urteetan haratuzteei ez diet kasurik egin eta.



Iraitz Azkargorta
Ikaslea
(14 urte)

Ez dakit mozorrotuko naizen, baina hemen ospatuko ditut, Arrasaten. Arratsaldean lagunekin irtengo naiz eta gauean sardinaren hiletara joango naiz.



Aurora Bernardo
Etxekoandrea
(52 urte)

Plan handirik ez, nahikoa lan dut alabendako mozorrotak egiten. Martitzenean hala ere bueltatxo bat emango dut, oso giro ona egoten da eta.



Felix Goikolea
Langilea
(59 urte)

Aspaldiko urteetan ez dut haratuzterik ospatu. Martitzen arratsaldean irtengo naiz kalera zein giro dagoen ikustera.



Manoli Garcia
Langabetua
(27 urte)

Orain Aretxabaletan bizi naizenez domekan bertan mozorrotuko naiz. Martitzenean Arrasatera etorriko naiz buelta bat ematera.



Ignacio Agirre
Langilea
(41 urte)

Ez dut aparteko planik. Martitzen arratsaldean kalera irtengo naiz umeekin, eta gero etxera.



Ibelice Saint-Hilarie
Etxekoandrea
(35 urte)

Semea mozorrotuta ikusita gozatzen dut haratuzteetan. Martitzenean irtengo gara kalera.



Esteban Estrella
Langilea
(28 urte)

Hurrengo egunean lan egin behar dudanez ez dut plan handirik. Bueltatxo bat hala ere emango dut.

KONTSULTA BERRIA!

JUAN RAMON ARANDO AZPIRI
REUMATOLOGIA
LAGUN ARO

Erdiko kale, 22-1. • Tel.: 79 72 16 • ARRASATE

BOLIÑETE
OILASKO ERRETEGIA

Bertan jateko edo eramateko.

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 79 39 91

USTEAK USTE

Mozorroitze kontuak

“**E**z zaitez zu zeu izan” agertzen du 350.

Arrasate Press honek bere azalean, mozorrotu eta ordu batzuetan mozorroaren barruan sartzea gomendatuz. Egun hauetarako baleko gomendioa, norberaren izaera ahaztu eta beste nortasun bat hartzea.

Niretako, dena den, ez dute haratuzteek aparteko enkanturik. Ikasle sasoiari, hurrengo egunean jai zatearren aitzakiaz, mozorrotu egin izan naiz, eta baita ondo ederki pasatu ere, baina.... Kontua da ez ditudala gehiegi atsegin erdi-agindupean antolatutako jaiak, mozorroen desberdintasunaren barruan denok gauza berdina egiten duten horietakoak, direla haratuzteak, direla gabon kantak, direla tanborradak, direla baserriar jantzi beharrak. Betidanik nahiago izan dut edozein afalostetan egunkariz edo eskuzapiz egindako kapela, bururatu eta egin, aurrez ezer programatu barik. Hala ere, badiet inbidi apur bat agindupeko jaietan gozatzeko gauza direnei.

Egun hauetan ni neu izango banaiz ere, zuek lasai egin kasu aldizkariaren izenburuari. Ondo ibili!

Beñardo Kortabarria



Langai: trumoi handiak eta euri gutxi

Juan Ramon Garai

Langaiek berak bere sorrera arrazoitzeko markatutako helburua betetzen duen edo ez baloratzeko goiz dela uste dugu, proiektu honek bere ibilbidea urrian hasi baitzuen. Hala eta guztiz ere helburua gogorarazi nahi dugu: enplegu eskarien eta enplegu eskaintzen bilketa eta eskaintzen den lanpostua betetzeko pertsona egokien aukeratu ahal izatea.

Hala ere agertu dira jada kurrikulume tarako eskatzen dituzten datuekiko lehenengo kritikak, generoarekin (gizon-emaume) zerikusia dutenak hain zuzen ere. Pertsona

batek lanpostu batera aurkeztean baldintza guztiak betetzen baditu, enpresariak gizonetzkoa edo emakumezkoa den jakin nahi izatea matxismoa izan daiteke, horregatik generoarekin zerikusia duten galderak ez liraketeela egin behar uste dugu.

Bestalde, Langaiek jaso-

“**Bere garrantzia duen baina eman ez duten datu bat, eskaintako lanpostuen ezaugarriak dira**”

tako estadistiken arabera urtarilaren 31an lanpostu eskaeren kopurua 30.517koa den bitartean, eskaintakoak 438 dira, hauetatik 5 Deba Garaian.

Bere garrantzia duen baina eman ez duten datu bat, eskaintako lanpostuen ezaugarriak dira: Kataluniako esperientziaren arabera, honek urteak daramatzalarik informatika bitartekari gisa duen sistema honekin, argi eta garbi isladatzen da batez ere titulodunak aukeratzen direla, prestakuntza eskasagoa dutenentzat eraginkortasun gutxi duelarik.

Azken hau, lan merkatuan ahulena eta langabezia den bora luzeak pasatzera zigortua da, era berean egoera honek gizarte marginaziora zein dualizaziora eramaten duelarik. Gaur egungo INEMaren hutsune nabari bat, sindikatuen lana da: hauek estadistiken txostenak jasotzen dituzte, gestionatzeko inolako aukerarik gabe. INEM Euskal Erkidegora transferitzeari begira, gure ustez, Euskal Lan Zerbitzua ezin da prestakuntza eta orientaziora mugatu. Hirukoaren osaketa izatea nahi dugu, (Administrazioa, Sindikatuak eta Enpresariak) beti ere gestiorako ahalmenarekin, noski. ■

Juan Ramon Garai,
Arrasateko CCOO



BAZAR
TOKI ON

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

Erdiko Kale, 7
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

astea bi hitzetan

■ Mankomunitateko aurrekontuak onartu

Joan den asteazkenean, urtarrilaren 29an, Deba Garaiko Mankomunitatearen aurrekontuak onartu ziren 629 milioi guztira. Juntara hurbildutako ordezkari guztiek, Xabier Zubizarretak kenduta, lehendakariak aurkeztutako aurrekontuen alde bozkatu zuten. HBko ordezkaria, Xabier Zubizarreta, abstenitu egin zen ingurugiroan Mankomunitateak dara-

man politikarekin ados ez dagoelako besteak beste. Enpresa Ekintzetarako Zentroaren inguruan, berriz, informazio falta dagoela esan zuten Zubizarretak.

Sasietara zaborrak eramateko lehiaketa, bestalde, adjudikatu barik geratu zen eta orain berriz ireki da. Lehiaketara aurkeztutako enpresa batzuk eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu ez zutelako geratu zen bertan behera adjudikazioa.

■ Olaziregiren hilketa salatu

Hainbat arrasatear bildu zen joan den ostiralean Herriko Plazan Eugenio Olaziregiren hilketa salatzeke. Ohi moduan isilean eta boro-bil bat osatuz egin zen kontzentrazioa. Momentu horretan udal plenoa zegoenez, plenoa etetea eskatu eta bilkura horretan parte hartze-
ra jeitsi ziren EAJko, PSE-EEko, EAKo eta PPko zinegotziak.

“ Ondo Andueza
... Downen sindromea

duen mutil bat ari dira elkarrizketatzen ETBn. Hasiera hasieratik - hala mutilaren nola kazetariaren jarrera ikusita-, susmo ona hartu diot saioari: giro lasaian daude eta ez dago, itxuraz, gehiegizko keinurik ezta oihu desatseginik ere.

(...) Kazetaria, morbotik urrun, txistosoarena egitetik urrun, paternalismo nazkagarrietatik urrun, modu naturalean ari da hizketan mutilarekin. Saioa aurrera egin ahala ez zait iruditzen telebistako elkarrizketa baten aurrean nagoenik ere. Are gutxiago Iparra galdu berri duen kate batean!

Egia da, dudarik gabe, mutilak joko handia ematen duela, modu maitagarrian erantzuten duela, xarma berezia dariola... Baina niri benetan harrigarria egiten zaidana kazetariaren jarrera zintzo eta sentibera da”.

JABIER MUGURUZA

Euskaldunon Egunkaria
1997-1-30



EAren BATZARRA ARRASATEN

Gipuzkoako Eusko Alkartasunak asanblada egin zuen joan den larunbatean Monterron jauregian. Tartean prentsaurrekoa eman zuten alderdiko agintariek, eta bakea lortzearen garrantziaz hitze-
gin zuten besteak beste. Probintziako hainbat afiliatuk parte hartu zuen asanbladan.

Ez pentsa gehiago...
esaiozu.



Iturriotz, 33 • ARRASATE • Tel.: 77 07 41

HBk grabetzat jo du hirukoak SPRIri proposatutako hirigintza hitzarmena

HBk epaitegietara jo du plenoan hartutako erabaki baten kontra dagoelako, eta bi hilabete barru Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak plenoaren erabakia legezkoa den ala ez esango duela uste da.

HBren eta EBaren kontrako botoekin eta Udaleko idazkariaren kontrako txostenarekin, plenoan aurrera ateraz EAJk, PSE-EEK eta EAK SPRI erakundearekin sinatzea proposatu zuten hirigintza hitzarmena. Xabier Zubizarretaren ustez, hitzarmena herriaren interesen aurka doa eta gainera, akordioan jasotzen diren puntu batzuk ez dira legezkoak. Alkatearen iritziz, hitzarmenean Udalak hainbat konpromezu hartzen du baina SPRIk bakar bat ere ez, eta sinatzera mugatzen da bakarririk. Grabetzat jo zuen alkateak onartutako hitzarmena, eta gogoratu zuen eurek SPRIri beste hitzarmen bat bidali ziotela baina erantzunik ez dutela jaso. Hirukoak ez ziren alkatearen kritikei erantzun, baina Ignacio Jimeno zinegotzi



Onartutakoaren arabera, Zerrajeraren erdiko edifizioa eta ondokoa ez dira botako.

sozialistak azalpen horiek plenoan egitea egokia ez zela aurpegiaratu zion alkateari.

SPRI, Industriaren suzta-penareko erakundea, Arrasa-

teko EBZaren bazkidea da eta orain gutxi Zerrajeraren erai-kin zati bat erosi zuen bertan Enpresa eta Berrikuntza Zentroa kokatzeko.

Zerrajera kontsolidatzea onartu

Zerrajeraren erdiko edifizioa (erlojua duena) eta bere ezkerrean dagoena ez botatzea onartu zuten EAJk, PSE-EEK, EAK eta PPK. Eskumakoa, berriz, bota egingo da.

Gai honen inguruan hiru jarrera azaldu ziren plenoan: hirukoarena, HBrena eta EBarena. Xabier Zubizarretak toki horretan zer erakiko den garbi eduki arte ez botatzeko erabakirik ez hartzea eskatu zuen. Angel Tijero ere ez botatzeko erabakiaren aurka azaldu zen, baina adostasun batera heldu asmoz, ezkerrekoa bota eta erdikoak ez botatzearen alde egin zuen.

Hildakoak

- Miguel Brasa Garcia. Urtrilaren 21ean. 83 urte.
- Esperanza Martinez De los Mozos. 21ean. 84 urte.
- Eusebia Guridi Etxeberria. 23an. 83 urte.
- Ursitina Andres Carmona. 24an. 83 urte.
- Emiliana Fernandez Garcia. 25ean. 84 urte.
- Francisca Moreno Coronado. 30ean. 90 urte.
- Pedro Etxabe Fernandez de Arroyabe. Otsailaren 1ean. 70 urte.

Gaitzespen mozioa aurrera

“Ekintza bandalikoak” kondenatzeko EAJk, PSE-EEK, EAK eta PPK jarritako mozioa onartu egin zen alderdi horien eta EBaren botoekin. HBk, berriz, kontra bozkatu baina mozioari erantzuteko idatzia irakurri zuen. HBren ustez, oposizioaren mozioak ez zuten kondenatzen azkenaldian Arrasaten jazotako hainbat gertaera larri.

Senideen mozioa atzera baina hirukoaren alternatiboa onartu

EAJk, PSE-EEK, EAK eta PPK mozio alternatiboa aurkeztu zuten Senideen mozioari erantzunez. Senideek familia bakoitzarendako %10eko dirulaguntza eskatu zuten, baina mozio alternatiboan familia bakoitzaren egoera ekonomikoa aztertu eta horren arabera Gizarte Ongizate Saitetik laguntza ematea proposatu zen.

Senideetako eta Gestorako kideek erantzun zuten, Gizarte Saileko laguntzaren berri bazutela, baina mozioa presoen sakabanaketa salatzekeo modu sinbolikoa zela. Pello Urizarrek, EAKo zinegotziak, adierazi zuen, horrela eginez gero hurrengo batean sinbolikoki onartu izana aurpegiaratuko zaiela. Botazioan mozio alternatiboa atera zen aurrera.

Etkez-etxeko langileen arazoari irtenbidea bilatu guran

Plenoak ahobatez etxeko zerbitzuaren ardura Goizargi enpresari ematea onartu ondoren, azken urteetan zerbitzu hori eskaini duten langileen egoerari irtenbidea aurkitu nahi zaio orain. Aukera gehien dituen irtenbidea, azken urteetan Bazain enpresan lan egin duten langileak Goizargira pasatzea izan daiteke. Orain arte 30 emakumetik gora aritu da etkez-etxeko zerbitzuan, eta legezkatutako egoeran (segur-

tasun sozialarekin) lan egin dutenak behintzat, Goizargira pasa daitezkeela uste da. Ostegunean LAB sindikatuko arduradunak bilera egitekotan zeuden Goizargikoekin aukera hori aztertzeko. Irtenbide hori, hala ere, epe motzerako izango da Goizargiri urtebete barru bukatuko zaiolako adjudikazioa, baina beste lau urtez luzatzeko aukeraz. EBaren eta HBaren nahia urtebete barru zerbitzua munizipalizatzea da.

Joseba Ugaldek, Gizarte saileko buruak, hala ere, garbi utzi zuen plenoan munizipalizazioarena lehiaketa publiko bidez egin beharko dela. Goizargik luzapena lortzen badu, berriz, adjudikazio pleguan jartzen duenari jarraituz langileen %65a euskaraz hitzegiteko gai izan beharko da eta %65ak laguntzaile kliniko titulua eduk beharko du. Gaur egun Bazainen ibilitako gehienek ez dituzte baldintza horiek betetzen.



Ostiraleko plenora hurbildu ziren Bazaineko langileak euren ezadostasuna azaltzera.

Sindikatuak ados ez

Gogor kritikatu zuten sindikatuek etxeko zerbitzua Goizargiri adjudikatu izana. CCOO sindikatuak, Bazainekoek lanean jarraitzeko eskubidea dutela eta negoziaketei heldu behar zaiela defendatu zuen. LABeko ordezkariak ere adjudikazio prozesuan akatsik egon ez arren, Bazainekoak lan barik uztea zilegi ez dela esan zuen. ESKK, berriz, sentzibilitatea edukitzea eta gaia mahaigaietan uztea eskatu zion plenoari. ELAK, azkenik, gaia Pertsonal Batzordetik ez pasatu izana salatu zuen.

Kritikek izan zuten erantzunik Joseba Ugalderekin aldetik. Gizarte Saileko buruak erantzun zuen, prozedura lege aldetik ondo eraman dela eta irtenbidea bilatzeko borondatea izan dutela.

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 79 13 78




**MARKO-JARTZEAK
ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

**ZUK NAHI
Taberna**
Pintxo goxoak
giro onenean!

Erdiko kale ARRASATE
Tel.: 79 79 26



**ESKIÑA
taberna**


Zorionak eta Urte Berri On!
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 79 20 20

Lezetxiki kultur ondasun izendatzea eskatu dio Udalak Jaurlaritzari

Lezetxiki kobazuloa, Lezetxikiko arpea (aztarnategia) eta Lezetxe kobazuloa kultur ondasun izendatzea eskatu dio Arrasateko Udalak Eusko Jaurlaritzari. Gainera, espedientea lehenbailehen irekitzea proposatu dio Udalak.

Izendapenaren helburuak, Lezetxiki eta Lezetxe kobazuloak babestea dira. Iazko abuztuan Aranzadi Zentzi Elkartekoek indusketak egin zituzten Lezetxikin, eta txarto zainduta dagoela ohartarazi zuten. Aranzadi elkarte-koek esan zuten, aitzur markak ikusten dira aztarnategian, eta horrek erakusten du jendea aztarnategira sartu dela. Aranzadi-koek txostena aurkeztu zuten Udalean, hartu beharreko neurrien inguruan, eta horietako batek kultur ondare izendatzea proposatzen zuen.

Horrez gain, Hirigintza Sailekoek proiektua landuko dute gai berdinen inguruan. Kontua da, Lezetxiki



Abuztuan indusketa lanak egin zituzten Leze-Txikin Aranzadi elkarte-koek.

eta inguruko lurak pribatuak direla eta Udalak erosteko aukera landu nahi du. Era

horretan, ingurua babesteko itxidura ere egin ahal izango litzateke.

Salaketak tabernen ordutegien inguruan

Ispilu eta Anbotoste tabernen inguruan bizi diren bizilagunek salaketa aurkeztu dute Udalean taberna horiek sortutako zaratak direla eta. Bi kasuetan Udalak jakinarazi die zaratak neurtu egin behar direla, eta horretarako, Udaltzaingoari edo Ertzaintzari deitu behar zaie zaratak jazotzen ari diren unean bertan.

Nortasun agiriak berritzen hasi

Asteartean hasi ziren Poliziaren funtzionariak nortasun agiriak berritzen. Martitzenean lehenengo 175 txartelak zituztenei jarri zieten argazkia eta hatz marka agirian, eta ostegunean beste hainbesteri. Guztira 6.000 agiri baino gehiago berrituko dira. Funtzionariak lehenago etorriko zirela esperoenez, atzerapena urduritasunez bizi izan du zenbait arrasatearrek.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

ARRASATEKO IKASTETXE PUBLIKOAK

GURE ETORKIZUNA



*Dohaineko hezkuntza, kalitatezkoa,
integratzailea eta euskalduna.*

Haur Hezkuntza (2-6 urte)
Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

Ereduak: "D" eta
Murgiltze

**Pedagogi metodo
aurreratuenekin
bat eginez.**

Matrikula
epea
otsailaren
17tik 28ra
arte

Informazio gehiagorako:



S. Andres: 79 00 44





Erguin: 79 77 74

**MUSAKOLA
HERRI ESKOLA**

Musakola: 79 04 49

25 URTE ELKARREKIN ETA POZIK

Alai eta dotore. Horrela zeuden Espe Zubillaga eta Angel Larrañaga euren zilar eztaietan. Jadanik hogeitabost urte pasatu dituzte elkarrekin eta horregatik jai handia egin zuten urtarrilaren 25ean. Bedoñan meza eta ondoren bazkaria Lasa jatetxean 102 lagunendako. Bai, sekulako jendetza gonbidatu zuten ospakizunera. Ezkondu zirenean ez zuten ospakizunik egin eta orain lagun guztiak bildu nahi izan zituzten. Oso ondo pasatu ei zuten eta festa gauera arte luzatu zen.



KOLONBIATIK BISITA

Kolonbiako kontsula, ezkerreko emakumea, bere bi laguntzaileekin etorri zen Arrasatera kooperatibak bisitatzera eta bide batez, nola ez, ARKOra bueltatxo

bat egin zuten herriko komunikabideen funtzionariak mendua ezagutzeko. Hiru kolonbiarrak Iñaki Bikandorekin, Bizkaiko Aldundiko ordezkariarekin etorri ziren

OKORETEGI

KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea ARRASATE Tel.: 77 03 62

Argazkiko hiru gizonen omenaldi beroa jaso zuten joan den ostiralean Musakolako kiroldegian egin zen boxeoko jaialdian. Ezkerretik hasita Amalio Galan, Santiago Galan

BOXEOLARIEI OMENALDIA

eta Jose Grille dira plaka bana eskuetan dutenak. Laugarren

boxeolari batentzat ere bazegoen plakarik, Antonio Caballerorentzat, baina honek ez zuen joaterik izan.

ZENBAKI BERRIA

Tokion dendak erloju baten zozketa egin zuen baina zenbaki saridunaren jabea agertu ez zenez, beste zenbaki bat atera dute: 355a. Zenbakia duenak egin dezala bueltatxo bat dendatik.

IZENA

Esther Fernandez

Arrasateko PSE-EEko zinegotzia izango da aurrerantzean. Esther arrasatearra da, 36 urte ditu, langabezian dago eta euskaldunberria da. Rafi Romero ordezkatu du Estherrek. Joan den ostiralean egin zen plenoan aurkeztu zuen talde sozialistak zinegotzi berria.



SANTA AGEDA KORUA UDALETXEAN

Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, Santa Ageda korua baserri baserri eta herrian ibili zen kantuan eta diru eskean. Bi taldetan banatuta Musakola eta Bedoña aldeko baserrietan ibili ziren baina eguerdian kalera jeitsi eta urtero bezala, udaletxera sartu ziren alkateari abesteko. David Arzamendik zuzendu zuen abesbatza, eta ondo zuzendu gainera. Udaletxeko langileei primeran etorri zitzaizen hauen bisita, lana utzi eta erabat gozatu zuten gizon-emakumeen ahotsekin.


DATA

1941, otsailak 5

On Jose Maria Arizmendiari Arrasatera iritsi zen. Markinarra trenez iritsi zen Arrasatera, eskuan maleta bat zuela, apaiz-kapa, sotana eta kapela jantzita. Gazteekin berehala harremanetan jarri eta lanari ekin zion, 1943. urriaren 10ean Eskola Profesionala inauguratu arte. Kooperatibismoaren oinarriak ezarri zituen eta lehen pausuak eman hainbat lanetan, 1976ko azaroaren 29an heriotzak harrapatu zuen arte.



Sipi Sipi
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82



BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETA

Zatoz ARKOren zure egoitza ezagutzera!

Atsegin handiz
erakutsiko
dizugu
etxe berria.



Otsailak 14, ostirala.

Goizez: 10.00-13.00


Arratsaldez: 15.00-18.00

Otalora, 31 • Tel.: 79 02 26



ARKO

ARRASATE KOMUNIKABIDEAK



Bulegoa Garibai Etxeko bigarren solairuan dago. Astelehenetan 6etatik 8ak arte eta ostegunetan 3.30etatik 5.30ak arte dago zabalik.

Informazio eta Orientazio Sexualeko Bulegoa

Sexualitateaz hitz egiteko espazio berria

Sexualitateari buruz hitz egiteko espazio bat sortzea. Hitz gutxitan esanda, hori da orain dela hiru hilabete eskas Arrasateko Udalak emakume taldeen ekimenez abian jarri duen Sexualitate Bulegoaren helburua. Maitena Zubia eta Ana Oiarzun psikologo eta sexologoak dabilta bulego horretan lanean eta zerbitzu berri hau esperientzia piloto moduan sortu bada ere, bi profesional hauek usain ona hartu diote arrasatearrek bulegoari egindako harrerari.

Sexualitate bulegoa Garibai etxean dago, Gazte Bulegoaren egoitza berean baina bigarren pisuan, lehen talde antimilitarista zegoen tokian. Esperientzia pilotoa denez, asteen bi egunez baino ez dago zabalik: astelehenetan 6etatik 8ak arte eta ostegunetan 3.30etatik 5.30ak arte. Kontsulta telefono bat ere badago bulegoan, alde batetik Sexualitate Bulegora hurbiltzerik ez dutenendako eta bestetik kontsultak era anonimoan egin nahi

dituztenendako.

Ana Oiarzunek esaten duenez, sexualitateaz hitzegiteko intimitate apur bat behar da eta horregatik egin zuten obra Garibai etxeko bigarren pisuan, hasieran pisu osoa gela bakar bat zen eta. Orain horma bat eraiki da bulegoa eta harrera gunea desberdintzeko.

Sexualitate Bulegoa azaroaren 20an zabaldu zen eta bere iraupena jendearen erabilpenagatik baldintzatuta dagoenez, kontu handia jarri zuten Maitenak eta Anak bulego ezagutzera emateko. Obrak

egiten ziren bitartean, eskutitzak bidali zituzten erakunde eta eskola desberdinetara zerbitzu berriaren berri emanez. Herriko telebistan, irratian eta aldizkarian nahiz Euskal Herriko batzuetan ere atera zirenez, esperientzia pilotoaren ohiartzuna bere fruituak ematen hasi da eta hiru hilabete hauetan bulegora hurbildu den lagun kopurua baikortasunez hartu dute. Anak esaten duenez, "badakigu jendeak sekula ez duela hilararik egingo bulegora sartzeagatik baina normala da, ez da erreza jendea sexualita-

teaz informatzera etortzea lortzea". Bulegoa zabaldu eta denbora gutxira 10 lagunen bisita izan zuten bulegoan. Zerbaki polita iruditu zitzairen Maitena eta Anari baina jende gazte gehiago hurbildu zedin zerbait erakargarria antolatu behar zutela erabaki zuten eta orduan antikonzeptzio kanpainarena bururatu zitzairen. Kanpainarekin lau egun baino ez daramatzate baina jende gazteak eta helduak erantzun du ondo, bulegora zuzenean joanez edo telefonoz deituz ere.

3. ADINEKOENDAKO INFORMAZIOA

Orain arte hogeitertetik gorako jendea hurbildu da batipat Sexualitate Bulegora baina Anari eta Maitenari jende gazteagoa hurbiltzea gustatuko litzateke. Bulegoa era guztietako kezkak kontsultatu edo beste barik informazioa jasotzeko dago eta kezkak edozein adinetan eduki daitezke, baita 3. adinean ere. Zoriturrez 3. adineko jenderik ez da bulegora hurbildu oraindik. Maitenak esaten duenez hori normala da, zaharrek sexualitateari buruzko beste kontzeptzio bat daukate eta.

Zaharrak bulegora hurbiltzen ez direnez, Maitena eta Ana euren hurbildu zaizkie eta Abaroan bilera bat egin zuten jubilatu etxeetako arduradunekin. Horren ondorio gisa, hitzaldi sorta bat antolatu dute bereziki 3. adinekoendako. Bilboko sexologo bat etorriko da Arrasatera aiton-amonekin hitzegitera otsailaren amaieran.


Bi adituek azpimarratzen dute Sexualitate Bulegoarekin gaiaz lasai hitzegiteko espazio bat sortu nahi dutela; izan ere, komunikabideetan sexuaz horrenbeste hitzegiten den garai honetan morboa baino ez da transmititzen. Ana Oiarzunek esaten du "komunikabideetan sexua kriminalizatu

egiten da, sekula ez da jendearen esperientzia errealez hitzegiten; horregatik herri batean herri mailako sexualitate zerbitzu bat egoteak sexuaz seriooki hitz egin ahal izatea posible egiten du". Maitenak dio telebistako programetan topikoetan erortzen direla beti sexuaz hitzegiterakoan, "kualitatiboaz, kuantitatiboaz eta morbosoz hitzegiten da".

Beraz, telebistan morboa eta topikoak eta eskoletan sexualitate heziketa txiki txikitandik. Zerk du eragina gazteengan? Anak eta Maitenak esaten dutenez, ezagutu dutenaren arabera telebistak du eragin nabarmenagoa: "Ikastetxeetan sexualitate heziketa egiten ibili garenean, neska eta mutilen jakin-gurak ezagutu ditugu. Neskek prebentzioaz galdetzen ziguten eta mutilek zakilaren tamainaz eta antzerako topikoez".

GAZTEEN DESINFORMAZIOA


Informazioaren garaian bizi ei gara eta diotenez, horren ondorioz baita desinformazioarenean ere. Sexualitateari dagokionez, gaur egun gazteek nonahi jasotzen dute informazioa: etxean, eskolan,



Maitena Zubia eta Ana Oiarzun sexologo eta psikologoak dira Informazio eta Orielen

sexualitate zerbitzuetan... gaur egun sexuaz hitzegitea normala da. Lehen debekuaren garaian bizi ziren, orain permisibitatearen garaia ei da Maitenak esaten duenez. Horrenbeste informazio

nahastea baino ez du sortzen gazteengan eta azkenean topikoak garaile ateratzen dira berriz ere: "Gazteei telebistatik informazio mota bat heltzen zaie; etxean gurasoek seme-alabei kondoia ematen



"Gazteei telebistatik informazio mota bat heltzen zaie; etxean gurasoek seme-alabei kondoia ematen diete baina hori ez da sexualitateaz hitzegitea; eskolan sexualitate heziketa daukate... dena eskura balute bezala saltzen zaie baina daukatena sekulako nahastea da"



leleko Bulegoko arduradunak.

dieta baina hori ez da sexualitateaz hitzegitea; eskolan sexualitate heziketa daukate... dena eskura balute moduan saltzen zaie baina daukatena da sekulako nahastea, zeren dena eskura badute, zergatik ez dira bikote gazteetan sexuari buruzko elkarrietzak normalak ematen? Argi dago elkarrietzak natural horiek sortu eta normaldu daitezkeen erreferente berriak eman behar zaizkiela gazteei" dio Maitenak.

Gurasoek seme-alaben sexualitate heziketan duten paperaz hitzegitean, familietan gaia ikuspuntu dramatiko tratatzen dela uste dute bi adituek, "alaba ez dadila haurdun geratu, HIESaz ez dadila kutsatu... guzti hori prebenitzeko hitzegiten da sexuaz baina zergatik ez zaie esaten sexu maite duzun pertsonarekin ondo pasatzeko ere badela? Gaia ez da dramatizatu behar"

"Zaharrak sexualitate bulegora hurbiltzen ez direnez, Maitena eta Ana zaharrei hurbildu zaizkie. Otsailerako sexualitateari buruzko hitzaldi sorta antolatu dute zaharrendako Abaroan"



azpimarratzen dute biek.

Bestalde, etxean edo zerbitzuetan baino, gazteek euren artean hitz eginez ikasten ei dute. Anak eta Maitenak diotenez, sexualitatea kriminalizatuta dagoelako gertatzen da hori, izan ere gazteek uste dute bakarrik arazo bat dutenean joan behar dutela horrelako informazio zerbitzuetara. Hala ere, bi adituek ez dute uste gazteek euren artean sexuaz hitzegitea larria denik, guztiz kontrakoa baizik, baina elkarri ondo informatu diezaioten sexualitatearen erreferente berriak behar dituztela esaten dute, hau da, sexuaz hitzegiteko modu berri bat, topiko barik. ■

Maidar Egües

Antikonzeptzio informazio kanpaina

Sexualitate Bulegoak antikonzeptzio kanpaina bati eman dio hasiera orain dela bi aste eta otsailaren 20ra arte iraungo du. Kanpainaren barruan kokatuta, bulegoaren kanpoaldean mahai handi bat jarri dute merkatuan dagoen antisorgailu eskaintzarekin: Preserbatiboak, diafragmak, DIUak, krema espermizidak, pilulak... gauza bakoitzaren ondoan karteltxo bat dago metodo bakoitza zer den eta zertarako balio duen azalduz. Badaude ere antisorgailuei buruzko liburuxkak eta foiletoak. Antikonzeptzio informazio kanpaina honekin jendea bulegora hurbiltzeko eta merkatuan dauden beste metodo batzuk ezagutu dezan nahi da.

Kasualitatez, kanpaina honek topo egin du orain dela egun batzuk hainbat komunikabidetan kaleratu zen pilula antikonzeptiboari buruzko informazioarekin. Komunikabideek esaten zuten EAEko emakumeek gaizki erabiltzen dute pilula, askotan ahaztu egiten dute hartzea eta. Anak haserre handia hartu zuen Gasteizko mediku bat telebistan agertu eta informazio hori baieztatu zuenean: "Emakumeak leloak bezala jartzen gintuen. Pilula hartzea ahazten genuela eta ondorioz metodoak efikaziarik ez zuela esaten zuen... baina ez, ez zuen esaten emakumeek pilula hartzen dutenean gauetan botaka egiten dutela batzutan, edo beherakoa izaten dutela... gainera, egun baten pilula hartzea ahazten bazaizu ez da ezer gertatzen, beste metodo bat erabili baitaiteke hilabete horretan eta bitartean pilula hartzen jarraitu".

Informazio kanpaina honekin bestalde, jende guztiari antikonzeptzio metodo bera ondo ez dihoakiola adierazi nahi da, hau da, ez dagoela antikonzeptzio metodo bakarra guztiendako. Norberak duen harremanaren arabera metodo desberdinak daude merkatuan. Horiei buruzko informazioa Arrasateko Sexualitate Bulegoan jaso daiteke otsailaren 20ra arte.

Boxeolaria

Fernando Garcia

“Boxeoa kirol gogorra da eta asko zaindu beharra dago”

— **Nondik datorkizu afizioa?**

— Juan Parra lagunak bultzatuta hasi nintzen. Dena dela, aurrez boxeoa ikusita nuen eta desiatzen nengoen kirol hau egiteko.

— **Ze prestakuntza daramazu?**

— Astean hiru bider Beti Ona gimnasioan aritzen naiz Santiago Galan entrenatzailearen gidaritzapean. Gai nontzeko egunetan korrika eta beste ariketa batzuk nire kabuz egiten ditut. Prestakuntza gogorra da baina beharrezkoa boxeoa zer bait egiteko.

— **Boxeatzaileak erdi ikututa gelditzen direla diote, egia da?**

— Boxeo amateurak ez du zerikusirik profesionalarekin, beraz ez daukat beldur hori, gainera profesionala izateko gogorik ere ez dut.

— **Familiak eta neska-lagunak zer esaten dizute?**

— Zoratuta nagoela, baina euren moduan laguntzen didate eta baita lagunak ere.

— **Hurrengo erronka?**

— Otsailaren 14an Gasteizen izango dut borrokaldi bat eta bali-teke ordutik aurrera prestakuntza sakonagoa Gasteizko boxeoa eskolan hartzea.



FUTBOLA Lehen postua gero eta gertuago




Preferente mailako Mondra ondo baino hobeto dabil azken boladan.

Domekan 3 eta 0 irabazi zion Beti Gazte taldeari eta garaipen horri esker sailkapeneko hirugarren tokian dago 40 punturekin. Datorren zapatuan 4.15etan denboraldiko 23. ihardunaldia jokatuko du Oartzunen kontra Ugalde txo futbol zelaian. Oartzunek 29 puntu ditu eta 9.a da. Samur irabazteko moduko neurketa ematen du. Partidu horretarako Jesus Mari Barrutiabengoak bost baja izango ditu. Alberto Matalobosek txartel gorria ikusi eta lau partiduko zigorra jaso du, Beñat, Tola, Luengo eta Luri berriz, lesionatuta daude eta ez dira gertu izango.

Mondrako emakumeek Tuteraraino bidaiatuko dute domekan eta Trofeo Amistad taldea izango dute aurrean. Neurketa arratsaldeko 4etan hasiko da. Juanina Garaik zuzentzen duen taldeak joan zen asteburuan 1 eta 0 galdu zuen Anaitasunaren kontra. Talde nafarra ez da hain sendoa,

erabakiorra izan behar, are eta gutxiago maila horretan dagoen parekotasuna kontuan hartuta. Arrasateko taldean Kortak eta Loitik ezin-goto dute jokatu ezta Moralejak ere.

SASKIBALOIA Derbia EBA ligan



Urbina Maltzagak Alvecon Maristas izango du arerio domekan arratsaldeko 7etan

Iruñan. German Mongeren mutilak azken norgehigokan lortutako garaipenari esker, moralez beteta joango dira Nafarroara eta gogo hori kantxan isladatzen bada, bali-teke puntuekin itzultzea. Jakina, hori lortzeko arrasatearrak ezingo dute amore eman.


RUGBYA Atsedena rugbylarientzat



Arrasate rugby taldeak atsedena izango du asteburu honetan.


Hamabost egun barru Eibarren kontra neurtuko dituzte indarrak.

ESKUBALOIA Liderra aurkari Sabadellen



Arrasate eskubaloia taldeak liderra izango du aurkari zapatuan arratsaldeko 6.30etan Sabadellen. OAC Garcia taldeak hamabost partiduetatik hamar irabazi ditu eta hiru galdu. Arrasatek ostera, hamaika galdu eta hiru irabazi. Sailkapena adierazgarria den arren, ez da zertan

PILOTA Deba Arroa Txapelketa



Zapatuan Deba Arroa Txapelketa hainbat partidu jokatu dute infantilek Oñatin.

Gutzira hiru partidu arratsaldeko 4etan hasita. Arrasateko bikoteak: Dominguez-Ormaetxea, Zubillaga-Uribarren eta Bergaretxe-Etxeandia. Domekan kadete, jubenil eta afizionatuek Eskoriatzan izango dute zita.

Saioa eskolako karatekak dominak lortzen nonahi

Saioa Karate eskolako gaztetxoek Errenderin izan zuten zita urtarrilaren bukaeran. Infantil mailako txapelketan herriko 12 karateka izan ziren eta Euskal Herri osoa kontuan hartuta 180 partaide. Iñaki Muñozek zuzentzen duen taldeak zortzi domina lortu zituen: bi urrezko, hiru zilarrizko eta beste horrenbeste brontzezko. Entrenatzailearen berbetan oso maila handia egon zen eta parte hartzaileak oraindik gazteak izan arren, gauza politak egin zituzten. Era berean Erik Martin Gipuzkoa eta Euskadiko Txapelketak lortu zituen karateka arrasatearrak Estatuko Txapelketara joateko aukera izan zuten. Emaizari dagokionez beharbada esperientzia ona izan ez bazen ere, ez da ahaztu behar Estatuko Txapelketara bakar batzuk bakarrik lortu zutela joatea eta horietariko bat Erik izan zen. Gainera Erikek Euskadiko 15 karateka onenen artean aurreselek-



Karateka gazteek maila bikaina erakutsi zuten.

zio frogara gainditu behar izan zuten eta seik lortu zuten txapelketa nagusira joateko txartela. Asteburu honetan berriz, Iñaki Muñoz entrenatzaile eta karatekak Kyokushinkai modalitateko gerriko beltza lortzeko txapelketa berezi batean hartu zuten parte Gasteizen. Bilbo, Gasteiz, Zaragoza, Logroño eta Arrasateko ordezkariak izan ziren. Lau orduko azterketa gainditu ondoren, Iñakik Kyokus-

hinkai-eko bigarren Dan-eko tituloa lortu zuten, aurretik hirugarrena zuten. Titulo hori lortzea zaila bezain nekeza da, horren lekuko arrasatear karateka honek azterketan galdu zituen lau kiloak. Datorren zapatuan ere izango dute lanik Saioako karatekek. Usurbilen antolatutako senior mailako Gipuzkoako Txapelketan Erik Martin, Iñaki Muñoz, Iker Zabarte, Iker Vitoria eta Unai Valor izango dira.

Krosean ere Arrastearrak itxuroso

Arrasate Atletiko Taldeko korrikalari veteranoak Gasteizen Euskadiko Kros Txapelketan erakutsi behar izan zuten zer egiteko gauza ziren. Ibilbideak 5.500 metro zituen eta 115 atletak lortu zuten helmuga zeharkatzea. Horien artean Arrasateko hainbat lagun. Jabier Mentxakak laugarren postua lortu zuen, Enrike Kabiketak zazpigarrena eta Cesar Diezek 21. Emakumeetan ordezkari bakarra: Marijose Gil. Berak bostgarren postua poltsikoratu zuen. Pista estaliko Gipuzkoako Txapelketan bestalde, Felix Sanchezek 18 urteko korrikalariak 800 metrotan 2 minutu eta 6 segunduko denbora egin zuten Anoetan. Felix Arrasateko taldean badabil ere, oñatiarra da.

Datorren asteburuan Zarauzko krosean hartuko dute parte infantil eta kadete mailako ordezkariak. Denboraz jeistea izango da helburua.



Arkupe-Joma taldea jaun eta jabe

Elorrio hiria txapelketan hartu zuten parte argazkian agertzen diren 7 urteko jokalariek gazteak. Arkupe-Joma izenarekin primeran ibili ziren arrasatearrak. Finalera heldu eta bertan 7-1 menperatu zuten Iurreta taldea herriko koxkortxoek. Gregorio Palacios entrenatzailea harro baino harroago geratu zen bere jokalariek egindakoarekin eta ez zen gutxiagorako. Jokalariak honako hauek izan ziren: Aitor, Markel, Josu, Joseba, Gorka, Aitor Fernandez, Pello, Oier, Beñat, Beñat Otxoa, Jose Mari, Jokin, Unai eta Iban. Zorionak eta horrela jarraitu!

zaldibarko futbitoa

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	16	14	1	1	99	30	29
Betrayer	16	13	0	3	96	36	26
Lorategi	16	12	2	2	63	36	26
Aurrera Bolie	16	12	1	3	88	45	25
Arrogoi Taberna	16	12	0	4	61	54	24
Galartza Kont	16	10	1	5	77	47	21
Pipwhis	16	10	1	5	71	53	21
Totem	16	9	2	5	73	46	20
DKB	16	7	5	4	55	43	19
Onariereng	16	9	1	6	49	60	19
Abinagraus	16	8	2	6	75	49	18
Ojo Avisore	16	6	2	8	68	58	14
Me la pela	16	6	2	8	60	53	14
Berango Sukal	16	6	2	8	62	67	14
Baneuko	16	6	2	8	35	46	14
Potrosorri	16	6	1	9	47	67	13
Leya	16	6	1	9	49	71	13
Viboras	16	3	1	12	61	88	7
Alai Gozokiak	16	1	5	10	31	77	7
Kraskibalda	16	2	2	12	34	74	6
Etxe Mobil	16	1	0	15	16	137	2
Kaxi Ganamos	16	0	0	16	3	36	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Naranja Mekanika	16	14	0	2	118	39	28
Okoretegi	16	12	3	1	85	29	27
Cerveceria Leintz	16	12	2	2	99	32	26
Insert Coin	16	11	2	3	78	31	24
Ke Oxtias	16	10	3	3	62	44	23
Argi Ibili	16	10	0	6	94	32	20
Jotakabau	16	8	4	4	55	60	20
Diego Antonio	16	9	0	7	84	62	18
Los Innombrables	16	6	6	4	70	61	18
Pepelus	16	7	3	6	68	57	17
Fosforos	16	7	2	7	71	71	16
Los Heredia	16	7	2	7	62	63	16
ZPPW7	16	5	5	6	74	80	15
Perrahotsa	16	6	3	7	43	53	15
Motz	16	6	3	7	53	70	15
Sobredosis	16	6	2	8	53	70	14
La mosca Gao	16	4	4	8	76	89	12
Gualtrapas	16	5	1	10	49	86	11
Kinder Kompresa	16	3	1	12	43	95	7
Ganbelas	16	3	0	13	45	79	6
Elisabeth	16	0	3	13	36	135	3
Hapoei Jamon	16	0	1	15	31	111	1

Emaitzak

A taldea

Betrayer 7 - Me la pela 1
 Abinagraus 3 - Ojo Avisore 1
 Leya 2 - Arrogoi taberna 5
 Potrosorri 1 - Kraskibalda 0
 DKB 3 - Irati STS 3
 Pipwhis 0 - Lorategi 1
 Onariereng 4 - Alai gozokiak 1
 Kaxi Ganamos 0 - Aurrera Bolie 1
 Totem 6 - Baneuko 3
 Viboras 3 - Berango sukaldeak 8
 Etxe Mobil 1 - Galartza kont. 13

B taldea

Argi Ibili 0 - Perrahotsa 1
 Okoretegi 4 - Ke Oxtias!! 0
 Jotakabau 5 - Ganbelas 1
 Cerveceria Leniz 2 - Insert Coin 6
 Naranja mecanica 9 - Motz 4
 Pepelus 9 - ZPPW7 4
 Los Heredia 1 - Los Innombrables 7
 Gualtrapas IK 1 - Kinder Komp. 4
 Elisabeth 1 - Sobredosis de txeira 3
 Fosforos 9 - La Mosca gao 6
 Hapoei Jamon 3 - Diego Antonio 5

D taldea

Lautherbrunnen 0 - Bukanak 7
 Sokoakoak 1 - Iluna taberna 0
 Rotor de Bolbogr. 0 - Orlando p. 1
 Txeyenex 4 - Bedarreta taberna 0
 AC Surkos 2 - Danok Lagun 5
 KK Jaurilaritzi 1 - Carton. Igamo 3
 Adelaida Aldibi 8 - MSM Ing. Int. 3
 Tronkoteak 2 - Nuevo taberna 17
 Hirei 1 - Koka Juniors 6
 Los Dimy 3 - Sortu Informatika 2
 Borrock'n roll 1 - Anbotoste KT 0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Sortu Informatika	16	12	2	2	90	37	26
Txeyenex	16	11	3	2	75	40	25
Nuevo Taberna	16	10	3	3	92	49	23
Sokoakoak	16	11	1	4	94	55	23
MSM ING Integral	16	11	0	5	73	51	22
Orlando Piratas	16	10	1	5	71	63	21
KK Jaurilaritzi	16	10	1	5	60	57	21
Bedarreta Tab.	16	10	0	6	54	39	20
AC Surcos	16	9	1	6	113	59	19
Koka Juniors	16	7	3	6	66	59	17
Adelaida	16	8	1	7	66	61	17
Los Dimy	16	8	1	7	58	59	17
Danok Lagun	16	7	3	6	49	53	17
Hirei	16	7	0	9	44	72	14
Cartonajes Igamo	16	5	2	9	45	53	12
Lautherbrunnen	16	6	0	10	42	80	12
Tronkoteak	16	6	0	10	34	85	12
Borrock'n Roll	16	5	1	10	76	78	11
Bukanak	16	5	0	11	54	80	10
Anbotoste	16	4	0	12	32	55	8
Rotor de Bolb.16	1	1	14	7	49		3
Iluna Taberna	16	1	0	15	31	92	2

Laburrak

■ Zigorrek ere protagonista

Pipwhis da aste hone-tan txapelketatik kanpo geratu den. Domekan goizeko 11etan jokatu behar zuten, ordu horretarako hiru jokalaria eta atezaina agertu ziren. Antolakuntzak 10 minutu itxoin zuen baina inor gehiago aurkeztu ez zenez kalera. Horrez gain, Bukanak taldeak bi puntu gutxiago ditu epaitu behar zuen

neurketara garaiz agertu ez zelako.

■ Partidu onenak

Partidu interesgarriak ere ez dira falta izango asteburuan. Zapatuan Bedarreta Taberna eta AC Surcos izango dira lehian. Insert Coin-Naranja Mekanika eta Txeyenexen aurkaria Orlando Piratas. Domekan bakarra. Eguerdiko 12etan Aurrera Bolie eta Totem.

Hurrengo partiduak

17. ihardunaldia Otsailak 8. Larunbata

Zaldibar

8.50 Kinder Kompresa - Elisabeth
 10.00 Koka Juniors - Los Dimy
 11.00 Ojo Avisore - Leya
 12.00 Danok Lagun - KK Jaurilaritzi
 13.00 Los Innombrables - Gualtrapas IK
 14.00 Lorategi - Onariereng
 15.00 Ganbelas - Cerveceria Leniz
 16.00 Lautherbrunnen - Sokoakoak
 17.00 Bedarreta taberna - AC Surcos
 18.00 Insert Coin - Naranja Mecanica
 19.00 Orlando Piratas - Txeyenex

Iturripe A

10.00 Me la pela - Galartza kont.
 11.00 Betrayer - Abinagraus
 12.00 Ke Oxtias!! - Jotakabau
 13.00 La mosca gao - Hapoei Jamon
 14.00 Arrogoi taberna - Potrosorri
 15.00 Sobredosis de Txera - Fosforos
 16.00 Berango sukaldeak - Etxe Mobil

Iturripe B

13.00 Sortu Informatika - Borrock'n roll
 14.00 Motz - Pepelus
 15.00 Nuevo taberna - Hirei
 16.00 ZPPW7 - Los Heredia

Otsailak 9, Igandea

8.50 Cartonajes Igamo - Adelaida Aldibi
 10.00 Baneuko - Viboras
 11.00 Perrahotsa - Diego Antonio
 12.00 Aurrera Bolie - Totem
 13.00 MSM Ing. Int. - Tronkoteak

ARRASATEKO IKASTETXE PUBLIKOAK

GURE ETORKIZUNA



*Dohaineko hezkuntza, kalitatezkoa,
integratzailea eta euskalduna.*

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Ereduak: "D" eta "B"

Eraikuntza berezia

- Araudi eta barne eraketa bereziak
- Ordutegi desberdina (goiz eta arratsalde)

Irakaskuntza euskalduna

- Irakasle euskalduna ("B" eta "D" ereduak)

Zerbitzu guztiekin

- Garraioa (dohaineko zerbitzua)
- Jangela (subentzionatua, laguntzailearekin)
- Orientazio departamenduak (hezkuntza pertsonalizatua)
 - Tutoreak
 - Orientatzailea
 - Psikologoa

Aukerako eskaintza zabalena

- Alemana
- Antzerkia
- Bertsolaritza
- Sukaldaritza ingelesez
- Informatika
- Euskal Dantza
- Frantsesa
- Abesbatza
- Matematika tailerra

Baliabide guztiekin

- Bideo gela
- Informatika gela
- Teknologi gela
- Natur Zientzien laborategia
- Ikusentzutekoen gela
- Liburutegia



**Matrikula
epea
otsailaren
17tik 28ra
arte**

Informazio gehiagorako:

Institutua: 79 44 47 / 79 20 38



Arrasateko OSASUN GIDA

DENTISTAK

- ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ☎79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90
- GIPIZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis ☎79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ☎77 12 63

DERMATOLOGIA

- ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1..... ☎79 72 16

FISIOTERAPEUTAK

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis .. ☎77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk..... ☎79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

MASAIARIAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk..... ☎77 06 22
- JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai)..... ☎77 01 33

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ☎79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎79 29 95

PSIKOLOGOAK

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea..... ☎79 20 18

REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1 ☎77 00 40

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎79 44 22

Biharko Play Back jaialdia berritasunekin eta freskotasunez gainezka dator

Urtero bezala zapatuan izango da SUDCek antolatzen duen Play Back jaialdia baina sesio bakarrean, gaueko 10.30etan.

Play Back jaialdia posible egiten dutenei dagokienez, partaideen umoreak behera egin ez duela eta jaialdiak partaide kopuru altuari eusten diola esan behar da: 40 lagun inguru irtingo dira zapatuan eszenatokira imitazio eta dantza desberdinak egitera. Jose Ramon Arkauzek, jaialdiko antolatzaileetarikoa batek, esaten duenez jende gazte berria sartu da eta hauek freskotasuna emango diote jaialdiari.

Aurkezleak iazko biak dira: Eva Romero gaztea eta Juanito Saizar. Aurkezpenak euskaraz eta erdaraz egingo dituzte.

IRAGARKIAK

Zapatuko jaialdira doan berritasun nabarmen bat igarriko du. Aurten jaialdiko lagun batzuk aktore lanak egin behar izan dituzte iragarki batzuk grabatzeko. Iragarkiak emanaldien artean botako dira bi tartetan. Arkauzek dioenez, jaialdiari itxura eta haize berri bat ematearren sartu dituzte iragarkiak, nahiz eta proiektorearen eta pantailaren alokairuak asko igo jaialdiaren aurrekontua.



Hainbat arrasatearrek izango duten itxurak ikusleen barre algarak eragingo ditu.

Jaialdiko lagunek denbora asko daramate ikuskizuna prestatzen Hori bai, aurten haratuzteak lehenago etorri direnez ustekabe harrapatu dituzte, eta egunotan lagun asko ibili ei da bere numero txoa prestatzen. Play Back jaialdirako sarrerak salgai daude Xaramela, Monte eta Eresin 500 ptatan, baina takilan ere erosi ahal izango dira gaueko 9.30etan. Urtero bezala aurten antzokia betetzea lortzen badute, 400.000 pta. jasoko dituzte jaialdiak ekarri dituen gastuei aurre egiteko.

Jaialdiaren programa

Aurkezleak: Eva Romero eta Juanito Saizar

Saioak

- 1.- Orkesta
- 2.- Sister Act
- 3.- Fabiolas
- 4.- Hirukle Show
- 5.- Alaska'me
- (Iragarkiak)
- 6.- Rebeca
- 7.- Paloma Sam-Ba, Sin Lio

- 8.- Kanoa Banda
- 9.- Decada Prodigiosa
- 10.- Eskamena
- 11.- Sor-Presa, Zor-Presa
- 12.- Mike Jackson
- (Iragarkiak)
- 13.- Spice Girls
- 14.- Pabi, Popo, Pilipi eta Popito
- 15.- Jesulin Du Brick
- 16.- The Blue Jeans
- 17.- Agurra "Korrika 97"

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65

M
Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

MOHAMED SALEM DAHA (FRONTE POLISARIOKO ORDEZKARIA)

“Gerrara itzuliko garda

Laguntza eske etorri zai-
gu Mohamed Salem
Daha Arrasatera. Bera
bezala saharaitarrak
izan, baina erbestean erre-
fuxiatuta bizi direndako
atun latak eskatzera. Kan-
painak emaitza onak lortzea
ezinbestekoa dela esan du
orain dela zazpi urte Gastei-
zen bizi den 38 urteko saha-
ratar honek. Fronte Polisa-
rioko ordezkaria izanik, bere
herriarendako elikagaiak lor-
tzea eta bizi duten arazoaren
berri ematea dira Mohamed
Salem-en eginbeharrak.

**- Zer egiten du saharatar
batek Gasteizen?**

- Nire lana Euskal Auto-
nomi Elkartetik Saharara
zuzentzen den laguntza bide-
ratzea da, eta bestetik, boze-
ramale lana egiten dut euskal
hertarrek saharatarren alda-
rrikapenak zeintzuk diren eza-
gutu ditzaten. Guzti horreta-

rako harremanetan nago EAE-
ko gobernuarekin eta parla-
mentuarekin, alderdi politi-
koekin, udalekin...

Etorri bezain laster euskal
hertarrengandik laguntza eta
elkartasuna jasotzen hasi
ginen, eta urtez urtez lagun-
tza handituz doa. Esaterako,
asko dira Saharako herriare-
kin anaitu edo elkartu diren
udalak, eta guri laguntzeko
elkarrekin ere antolatu dira.

**- Gustora enbaxadore
lanarekin?**


- Gutxi gorabe-
hera enbaxadore
lana egiten

du, eta gustora nago gure
mezuak Euskal Herrian harre-
ra ona

izan du eta. Jendeak ezagutzen
du zein arazo politiko duen
erbestean bizi den herri saha-
ratarrak. Elkartasuna jaso-
tzen dugu, eta horrek gus-
tora sentiarazten nau.

**- Atun latak batze-
ko kanpaina hasi duzue
Euskal Herrian. Zer
dela eta?**

- Erbestean eta erre-
fuxiatuendako kanpa-
menduetan bizitzeak arazo
asko dakar, eta horietako bat
elikadurarena da. Basamor-
tuan ezer barik bizi gara, eta
aurrera jarraitzeko behar
dugun guztia kanpotik jaso-
tzen dugu. Errefuxiatuek hoge-
i urte baino gehiago daramate
arrain freskoa jan barik, eta
horregatik, arraina ordezkari
dezaketen elikagaiak
eskuratzea garrantzitsua
da. Errefuxiatuei atuna
asko gustatzen zaienez
eta hemen atuna aur-



**“Euskal Herrian atun latak
jasotzeko kanpaina hasi dugu.
Guretako ezinbestekoa da jendeak
kanpainan parte hartzea.”**

durra berreskuratzeko”

kitzea erraza denez, Euskal Herrian atun latak jasotzeko kanpaina egitea erabaki dugu. Guretako ezinbestekoa da jendeak kanpaina horretan parte hartzea. Arrasaten lehenengo aldia da kanpaina hau egiten duguna, baina iaz beste toki batzuetan egin genuen eta guztira 600 tona jaso genituen.

- Nola eramango dira atun latak?

- Kanpaina otsailaren 12an bukatuko da, eta 20an kanpamenduetara abiatuko gara. Arrasatearrek Udaltzaingora eramán ditzakete atun latak, baina diruz lagundu nahi dutenendako kontu korrante bat zabaldu dugu Euskadiko Kutxan (0600071286). Bildutako latak kamioietan eramango ditugu, eta kamioi horiek

Euskal Herriko udalek emandako diruarekin erosiko dira.

- Zer dela eta aldegin behar izan zuten saharatarrek euren lurraldetik?

- Kolonizatzaile espainiarrek Marokoren eta Mauritaniaren esku utzi zuten herri saharatarra. Ondoren, Mauritania gerratik urundu zen baina Marokok armak erabiliz gu bizi ginen lurraldea okupatu eta bertan bizi ginenak kanporatu gintuzten. Horrela 75ean, etxeak utzi eta Argeliara erbesteratu beharrean aurkitu ginen. Gaur egun

180.00 saharauitar bizi dira kanpamenduetan, baina batzuk ezin izan zuten irten, asko dira Marokok Saharan okupatutako lurraldeetan bizi direnak ere. Zaila da zenbat garen esatea, batzuk Mauritanian eta inguruko beste toki batzuetan bizi dira eta. Esan daiteke miloi bat inguru garella.

- Zein egoeratan bizi zarete?

- Argeliak utzitako basamortu zati batean errefuxiatuendako lau kanpamendu handi antolatu, eta hortxe bizi dira saharatarrak kanpin-dendatan. Munduko basamortu gogorrean gaude bizi izaten eta baldintzak penagarriak izan arren, morala sendo dago.

- Mendebaldeko Sahara zelako herria da?

- Aberatsa, mineral asko eta meategiak edukitzeaz gain arrain banku garrantzitsua du eta. Arrain bankuak direla eta, Europa eta Maroko tratatuak egiten ari dira, eta horietan gure urak sartzen dira. Gure iritziz tratatu horiek ez dute baliorik eta herri saharatarri egindako lapurreta dira. Europa, Marokorekin batera, lapurretan ari da.

- Zein da gaur egungo egoera?

Momentu honetan su-etena dago baina ez du asko iraungo, zeren sei urte darماغu Nazio Batuen Erakundeak bake plana noiz ezarriko zain. Gerrara itzuliko gara gure lurraldea, Mendebaldeko Sahara bezala ezagutzen dena, berreskuratu eta independentzia lortzeko. Nazioarteko komunitateak legea ezartzen badu, borrokan hasi beharko dugu eta hori laster izango da. ■

“Munduko basamortu gogorrean gaude bizi izaten eta baldintzak penagarriak izan arren, morala sendo dago”

Jai Zale
 TABERNA
 • Bokatak
 • Pintxoak
 • Infusio naturalak
 eta...
MARTXA
TOPATUKO DUZU!
 Olarte, 37
 Tel.: 79 67 92



LENIZ
Garagardotegia
Ondo pasatu
Haratuzteetan!
 Iturriotz, 8
 Tel.: 79 22 29 ARRASATE

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
 Erdiko kale, 42
 Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

MARIANO ANDRADE SIGANO
TAXIA
 24 orduko zerbitzua
 Hotelak / Aireportua /
 Ospitaleak...
 Tel.: 79 96 87 • Tfno mobilak: (907) 75 23 85
 Anboto, 2-4 ezk. ARRASATE

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxea salgai Elkano kalean. Tel.: 77 13 02.

• Etxebizitza salgai Erguinen. Tel.: 79 64 80. Gauzez.

• Pisia salgai erdialdean. 90 m². la berria da eta berogailu eta igogailua dauka. Tel.: 79 42 13.

• Eguzki dorrean pisua salgai. Tel.: 79 09 63.

• 92 m²ko pisua salgai Larrain kalean (Malvinas). Tel.: 79 78 08.

• Arrasateko erdialdean apartamentua saltzen da. Berogailu zentrala eta ganbareekin. Tel.: 79 52 93. Eguerdian edo gauetan.

2. Erosi

• Etxea erosi nahi dut Arrasaten. 100 m² ingurukoa. Nahiago igogailua eta berogailua izanez gero. Sarrera eguna negoziagarria. Tel.: 79 01 26.

3. Errentan emateko

• Pisua alokagai Donostiako Egia auzoan. Tel.: 79 25 16.

• Pisua alokatzen da Iturriotz kalean. Tel.: 79 18 50.

• Salobrenako hondartza txaleta alokatzen da. Tel.: 79 49 98.

• Alakanteko San Juan hondartza pisua alokatzen da. Tel.: 79 49 98.

5. Etxe konpartituak

• Alokatzeko edo konpartitzeko pisu bila nabil. Tel.: (945) 42 00 13. Gaspar.

• Deustuko ikasle pisu batean gela bat alokatzen da oso prezio onean. Tel.: 79 19 96.

GARAJEAK

7. Saldu

• Zarugalde 3an garaje plaza saldu edo alokatzen da. Tel.: 79 23 06.

• Roneoko etxeetan garaje itxia salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Lehengo Villa Amparo zenaren

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontakatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

tokian garaje itxia alokagai. Tel.: 79 19 62. Gauzez.

• Garajea alokatzen da San Andresen. 65 m². Tel.: 79 13 52.

10. Errentan hartzeko

• Garaje txiki bat behar dut alokagai Arrasaten. Tel.: 79 22 92.

LOKALAK

12. Saldu

• Martxan dagoen negozio salgai. Tel.: 79 00 00.

• Erguin kalean lokala salgai. Tel.: 79 18 70.

14. Errentan emateko

• Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel.: 79 28 01.

• Biltegi bezala erabiltzeko 34 m²ko lokala alokagai. Tel.: 79 20 48.

15. Errentan hartzeko

• Biltegi moduan erabiltzeko 100 m²ko lokal baten bila gabiltza. Kamioi bat sartzeko modukoa izan behar du. Tel.: 77 10 50. Jabi.

16. Bestelakoak

• Lokal komertziala eskuz aldatzen da, beheko eta lehenengo solairua. Tel.: 79 18 00 / 77 08 97.

• Erdiko kaleko bi solairuko lokal komertziala traspasatu egiten da. Tel.: 78 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

• Neska euskalduna gertu dendari edo kamarero lanetarako. Tel.: 79 37 68.

• Neska esperientziaduna etxeko lanak egiteko edo agureak zaintzeko gertu. Tel.: 79 27 48.

• Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko. Tel.: 79 04 10.

• Neska gertu umeak edo pertsonak nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 31 44. Gauzez.

• Emakumea gertu orduka etxeko lanak egin edo pintxe bezala lan egiteko. Vican. Ferrerias kalea, 30-2. solairura hurbildu.

• Emakumea orduka lan egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 23 54.

• Esperientziadun neska etxeko lanak orduka edo egun osoz edo umeak zaintzeko prest. Tel.: 79 31 44.

• Klinika laguntzailea eta gerontologian diplomaduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 53.

• Jangelan eta tabernetan esperientzia duen neska lan egiteko gertu. Tel.: 79 73 42.

• Etxeko lanak egin edo aterteak garbitzeko neska gertu. Tel.: 929-47 72 65.

18. Eskaerak

• Neska edo emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 77 07 74.

• Umeak zaintzeko neska behar da. Tel.: 79 90 94.

• AEKko euskaltegirako irakasleak behar dira. Dei egin euskaltegiara. Tel.: 77 03 69.

• 35 eta 55 urte arteko emakumea behar da adineko bikotea zaintzeko. Dei egin 8etatik aurrera. Tel.: 76 51 67.

19. Bestelakoak

• Lanak makinaz pasatzen ditut. Euskaraz edo gazteleraz. Tel.: 77 11 84.

• Negozioa eskuz aldatzen da. Zuzenbidea: Erdiko kalea 48.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• OH0, DBH, REM eta Logseko klase partikularrak ematen dira. Tel.: 79 98 68 / 79 40 57.

• Irakasle titulodunak Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditu. Tel.: 79 94 04.

• Guraso bazara eta zure seme-alaben eskolako lanetan laguntzeko astirik ez baduzu, lizentziadun, EGAdunak eta ingelesa dakienak klase partikularrak ematen ditu. Tel. 79 11 99. Itziar.

• Klinikari lizentziadunak taldeka kla-

se partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 42 97.

• Magisteritzan diplomadunak klase partikularrak ematen ditu. Tel.: 79 35 24.

21. Eskerak

• Marrazki geometrikoko klase partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 83 33.

• Alemanezko klase partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 71 48 90.

• Bigarren BUPeko ingelesko klase partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 68 75.

• 3. BUP mailako matetatika irakaslea behar da. Tel.: 79 20 24.

• Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisisa, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.

MOTORRA

23. Saldu

• BMW R-65 motorra salgai. Txuria,

errubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

• Furgoneta-etxea salgai. Jasotzen den teilatuaz. Guztiz jantzita eta extra askorekin. Tel.: 76 04 47. Gaez.

• Opel Kadett Van autoa salgai. SS-Z. Bost plaza, egoera ona. 375.000 pta. Tel.: 79 12 53.

• Renault 11 salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.

DENETARIK

26. Saldu

• Kerosenozko berogailu japoniarra salgai. Tel.: 79 03 67.

• Egongelako altzariak, egoera onean, salgai. Prezioa negoziatzeko. Tel. 79 01 33 edo 989-76 49 66.

• Astrajolas ordenagailua salgai, 100 jolasekin, oso merke. Tel. 79 34 79.

• Egongela eta jangelako altzariak saltzen ditut. Zumezkoak dira eta egoera onean daude. Tel.: 79 71 35. Gaez.

• Likidazioagatik argjontzi eta mahaitxo lanparak salgai. Tel: 79 25 96.

• Bi mostradore eta bitrina salgai. Tel: 79 99 41 edo 79 25 26.

• Fender gitarra anplifikadorea salgai. 38 W.A. Reverd. Etxean erabili dut bakarrik. 20.000 pta. kableak eta "chorus" pedala barne. Tel: 79 25 10. Igor.

• Eskalatzeko Boreal markako katu hanka salgai. 43-44 zenbakia. Oso gutxi erabilia. 5.000 Pta. Tel: 79 25 10. Igor.

• Compact irakurle bi salgai. Tel: 79 76 88. Prezio interesgarria.

• Fruitadenda bateko apalak salgai. Benetako prezioa 1.500.000 pta. ko da baina nik 300.000 pta. tan saltzen ditut. Berri berriak daude. Tel.: 79 37 82.

• 1.05 m. ko ohea koltxoi eta guzti, sekreterra eta mesanotxea salgai. 15.000 pta. Tel.: 79 78 10 / 77 14 04.

• Fibro markako bi berogailu salgai. bakoitzak 20.000 pta. tan. Tel.: 77 07 74.

• Arraza oneko txakur kumeak salgai. Tel.: 74 28 64.

27. Erosi

• Ordenagailuendako 14 pulgadako pantaila erosiko nuke. Tel.: (945) 44 50 05.

• Auto barruan umea eramateko aulkitxo erosiko nuke. Gaueko 8etatik aurrera. Tel.: 79 23 69.

• Kitarra elektrikoa eta anplifikagailua erosiko nituzke. Tel.: 74 37 23.

• Bigarren eskuko seaska bat egoera onean erosiko nuke. Tel: 77 12 36. Deitu gaueko 8.30etatik aurrera.

32. Aurkitu

• Urtarrilaren 15ean, asteazkena, Zaldibarren umeen bizikleta bat galdu bazenuen joan zaitez Ertzaintzara jasotzera.

33. Bestelakoak

• Dante, Petrarca edo Boccacciori buruzko lan bat behar dut Unibertsitaterako. Tel.: 79 82 42 / 79 28 71. Igor.

• Zuk nahi duzun guztia esango dizut Tarota irakurriz. Tel.: 907-43 13 62.



LEIHO ISOLATZAILEAK



Bezeroarekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak



(I+D) Ikerketa eta garapena





Fabrika Zentrala

Irtenbide aproposena!


Kataide poligonoa, 4. pabilioia.
Tel.: 77 01 57 ARRASATE

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia



■ Jose Hilario Fuentes

CORAZON DE ENCINA KULTUR ETXEKO LEHENDAKARIA



Ozpindu samarra naiz, jende askorekin tratatzea ez zait gustatzen/Euskortasuna.

5. Zerk lotsarazten zaitu?
Ez dakit.

6. Amets bat?
Kastuoeraz hitzegingo duen norbait egotea beti.

7. Zer kenduko zenuke mundutik?
Erljioak.

8. Gertakizun historiko bat?
Frantziar Iraultza.

9. Nor miresten duzu?
ONGtako jendea, ez zaie inporta bizitza jokoan jartzea besteei laguntzearen.

10. Zeri diozu beldurra? Fanatismoari.

11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.

12. Negar egin duzun azken aldia?
Nire alaba Maria Angeles hil zenean.

13. Zer falta zaio Arrasateri? Jokalari profesionalentzat frontoi bat.

14. Eta zuri? Bistan dago: ilea.

15. Lanbidez aldatzekotan?
Hegazkineko piloto.

16. Arrasateko gustoko toki bat?
Monterron.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Kinielak bete.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu? *El País*.

19. Gustoko janari bat? Langostinoz betetako piperrak.

20. Liburu on bat? *El Quijote*.

21. Filmerik onena/txarrena? *Matar un ruiseñor/Raza*.

22. Musika talderik onena/txarrena? *Jarcha/No me pises que llevo chanclas*.

23. Telebistako programarik onena/txarrena?
Dokumentalak/Telenobelak.

24. Egin dizuten oparirik politena?
Txikitan osabak plater hegalaria antzeko jostailu bat oparitu zidan.

25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Irakurtzen eta zentru extremeñoan.

26. Oporretarako toki bat? Mallorca.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Bat bera ere ez zait gustatzen.

28. Gomendio bat? Beharra duenari lagundu beti.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Semeengatik.

30. 200 milioi irabaziz gero? Arazo ekonomiko gabeko zentru extremeño bat nahiko nuke.

Otsailaren 16an jaio zen Higuera de la Serenan, Badajozen. Han egin zituen oinarritzko ikasketak eta gaur egun informatika programadore gisa lan egiten du. Arrasaten bizi da eta bi seme ditu.

- 1. Zein da zure horoskopoa? Akuario.
- 2. Sinestuna zara? Ez.
- 3. Animalia bihurtzekotan? Arrano.
- 4. Zure akats bat/gauza on bat?

**ARROGOI
TABERNA**

Haratuzteetako parrandarik onena.

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 79 06 40

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea**

HAURDUNALDLIA AMNIOZENTESIA ANTISORKUNTZA	MENOPAUSIA BASEKTOMIA BULAR PATOLOGIA
---	---

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

DISCO-BAR

GURELEK

**Disco-Bar Gurelekuk
Haratuzte egun zoriontsua
oparitzen dizu.**


Zarugalde, 17 beheka • ARRASATE
Tel.: 79 20 29

Otsaila: inausketa, bildots, gazta eta sagardo kontuen artean

Otsaila deitzen zioten otsailari, era horretan adieraziz gose hila zela, ez gose handiegia pasatzen zutelako, bai zik eta hile honetan normalean egiten duen eguraldi txarrak gogortasun erantsia ekartzen ziolako baserriko bizitzari.

Izan ere, egoten zen zereginik baserrietan. Lehen batutako eta gordetako artaburuak kamaratik jaisten zituzten, aletu ahal izateko. Artaburuak puntak eta ipurdiko aleak gorde egiten ziren gero erabiltzeko, oiloei emateko eta horrela, eta erdiko artaleak hazitarako izaten ziren. Bixente Pagoagak dioenez, "erdikoak hobeto estalita egoten zirelako, horrela landatutakoa hobeto etortzen zen".

Inausketa sasoi izaten zen, sagarrondoak, makatzak, mahatsa, okanak... eta beti ere ilbeheran, zuhaitzei egiten zaien zauria hobeto sendatzen delako. "Lehen baserrietan ilbeherari garrantzia handia ematen zitzaion, lan asko izaten ziren ilbeheran egin beharrekoak: txerria akatu, zatzak atera, hazia erein, ulea ebaki... Ilberrian ateratako zatza zuri-tu eta lehortu egiten da; ilbeheran ateratakoa, berriz, baltz-baltza eta mantekosoa". Ilargiaren faseak, gainera ez ei-



Inausketa egiteko sasoi egokia izaten da.

ziren sasoi batean gaur bezala kontaktzen. "Ilbete denean hasten da ilbehera, baina ilbe-tearen ondorengo bi egunak oraindik ilberri izaten ziren,

indarra gordetzen zuelako; eta alderantziz".

Berakatzak ere jorratzen ziren, baina Bixenteren ustez ez da ona berakatzak edo baba-

baltza jorratzea, "aitzurrez ikutzea ez zai gustatzen eta".

Sagardotegi bolada hasi den garai hau, sasoi batean azaroan egindako sagardoa boteiletan sartzeko erabiltzen zen. Badu Bixente Pagoagak umetako sagardogintzaren gainean zeresanik. "Mutikoak zeuden tokietan sagardoa ez zen sekula gradoetara ailegatu. Lastoaz joan, barrikatik edan eta ura botatzen genion. Azukarra botatzen zitzaion gero". Arnasarik har ez zezan kortxoaz eta buztinez estaltzen ei zen sagardoa, gero enboteilatzeko.

Ardi kontuetan ere, sasoi gogorra, bildotsak kentzen hasi beharra. "Lehen debekatuta zegoen bildotsak sokaz lotzea, sagatzaz lotzen ziren, odolak berdin berdin korritzen zuelako. Harakina etortzen zen plazara bildotsak erosten". Gaztagintzan ere makina bat ahalegin, eta ez oraingo moduan botika erabiliz Bixenteren hitzetan. "Gatzariak egiten zen, hau da: bildotsaren pantzaz. Nik oraindik horrela egiten dut, hori delako naturala, eta gazta askoz ere fuertegoa eta gozoagoa izaten da. Hori bai, esnea edandako bildotsaren gatzaria eskatzen du, belarra jandakoarenak ez du balio".

ETXERAT TABERNA


EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA!

ZURGIN KANTOI, 5
TEL.: 79 20 52
ARRASATE

■ Horoskopoa

- **Aries** Agure baten erritmoan ibiltzen zara. Pila faltan?
- **Taurus** Gauzak bizkor egiten dituzu baina zelan?
- **Gemini** Astelehenetan izaten duzun aurpegiak dena erakusten du.
- **Cancer** Asteazkenean zehar lotsatuta egoten zara baina astebukaeran...
- **Leo** Orain manga motzetan ibiliz gero, zer jantziko duzu udan?
- **Virgo** Duzun planarekin egun guztiak berdinak iruditzen zaizkizu.
- **Libra** Bizikletan ibiltzea erraza da baina ez al da berandutxo?
- **Scorpio** Azterketak gainean eta zu ikasteko asmo barik.
- **Sagittarius** Exageratzea gustatzen zaizu edo horrelakoa zara?
- **Capricorn** Herriko famatuena zarena uste duzu baina ez da hainbesterako.
- **Aquarius** Triste esnatzen zarenean gauzak hobeto ateratzen zaizkizu.
- **Piscis** Ilea moztzen ez baduzu pizti itxura hartuko duzu.

■ Gurutzegramak



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 2. AEDko lehendakari berriaren izena. 8. Umetoki. 10. Gehiegi. 11. Azkazaletan ematen den barniza. 12. Hizkuntza bakarra dakiena. 14. Esku-arma, mihi motz eta zabalduna. 15. Euskadi Ta Askatasuna. 16. Eguneroko jangai ezaguna. 17. (Ald.) Gorputzaren goiko atala. 18. Hazi gabe geratu den norbait.

Bertikalak 1. Gasteizko festetako pertsonaia. 2. Askatu, bibratu. 3. Osmioa. 4. Egongela. 5. Ebakitzeko era. 6. Erliijoak txar txat duen ekintza. 7. Euskal mitologiako jainua. 9. Andaluziako probintzia. 13. BAI adizondoaren laburdura.


Horizontalak: 1. Zeledon. 2. Jaregin. 3. Os. 4. Sala. 5. Ebakera. 6. Bekatu. 7. Alarabi. 9. Malaga. 13. Ba. 17. (Ald.) Burn. 18. Mano.
Bertikalak: 2. Joseba. 8. Emasabel. 10. Lar. 11. Laka. 12. Eibakarr. 14. Daga. 15. ETA. 16. Ogi.

ikastaro gazteak

Euskal Dantzak "Lore Gazteak" taldearen eskutik

- **10-14 urte bitartekoei zuzendua:**
otsailaren 19tik San Juanak arte,
asteazkenetan, 6.30etatik 7.30etara.
- **15 urtetik gorakoei zuzendua:**
martxoaren 14tik San Juanak arte,
ostiraletan, 7etatik 8.30etara.

Matrikula: 1.000 pta. • Plaza mugatuak
Bikote mixtoek lehentasuna izango dute.
Izen emateak: Gazte Bulegoan. 77 00 65



ARRASATEKO UDALA

Gazte Saila ■



ATBren 7. urteurrenean, egoitzaren inauguraketa zuzenean

Datorren ostegunean, otsailak 13, Arrasate Telebistak zazpi urte beteko ditu. Gainera egun horretan ere ARKOn egoitza berriaren inauguraketa egingo da, beraz, urtebetetzea eta inauguraketarekin bat egin eta zuzeneko programa berezia emitituko da otsailaren 13an, arratsaldeko 8etan.

Beñardo Kortabarriak eta Maria Agirrek aurkeztuko dute

saioa eta Itxaro Zubillagak inauguraketara hurbildutako gonbidatuei elkarrizketak egingo dizkie. Inauguraketan alkaterearen hitzak, ARKOn lehendakariarenak eta lehendakari ohienak zuzenean entzun ahal izango dira. Mondragon Brass musika taldearen zuzeneko obrak eskainiko dira eta baita hainbat bideo ere. Bideoetan egoitza berriaren itxura ikusi

eta nondik norakoak ezagutu eta ARKOn lan egiten duten lagunak hobeto ezagutu ahal izango dira. Lan teknikoa egiten, jakina, ATBko lankideak ibiliko dira: Ion Aldanondo, Iñigo Andola, Monika Montero eta Nagore Bergaretxe.

Bestalde esan behar da ere astelehenean otsailak 10, Arrasate Telebista bere ohiko programazioarekin hasiko dela.

Arrasate Irratia FM 107.7

Egunero

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina:
14.30 Bixau orduan

Astelehena

22.00 Caravanserai musika saioa.

Asteartea

22.00 Euskal Festa.

Asteazkena

22.00 KK2A

Osteguna

21.00 Adi Egon
22.00 Txerrendantza

Ostirala

22.00 KGB informatika saioa

Larunbata

9.30 Jailarai umeendako saioa.
11.00 Zoroklasikoak musika klasiko saioa.

■ ATBko asteko programazioa

10 Astelehena	11 Asteartea	12 Asteazkena	13 Osteguna	14 Ostirala
20/20.30/21.00 Berriak	13.30 Mondrasport (Errep.)	13.30 Play Back jaialdia (Errep.)	13.30 Musika (Errep.)	13.30 ARKOn egoitzaren inauguraketa (errep.)
21.30 Mondrasport	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20.00 ARKOn egoitzaren inauguraketa (zuzenean)	20/20.30/21.00 Berriak
	21.30 Play Back jaialdia. Larunbateko jaialdia oso osorik etxean ikusteko aukera.	21.30 Gozategiz Blai Arrasaten. Urtrilaren 24ko jaialdia		



Garagartzako eskolaren argazkia argitaratu ginen orain gutxi; aste honetan, berriz, Santa Agedakoa. Garagartzakoa mutilentzat zen, eta Santa Agedakoa, bistan denez, neskentzat.

Argazkian ageri direnak honako hauek: Nieves Arana,

Fermina Abarrategi, Marisol Pagalday, Txaro Beitia, Guillermo Llanos, Kontxita Berzibar, Nieves Unamuno, Juli Pagalday, Mertxe Arana, Milagros Eriz, Ana Mari Abarrategi, Isabel Uribarren, Karmen Uribarren, Pilar Larsanguren, Juanita Martinez.

Begoña Abarrategi, Ange-

les Bengoa, Isabel Unamuno, Espe Jauregi, Mari Tere San Vicente, irakaslea Isabel Iturbe, Angelita Azkarraga, Angelita Azkoaga, Dolo, Edurne, Maria Luisa Barandiaran.

Jesusa Leibar, Dolores Agirre, Milagros Azkoaga, Maribel Arana, Asun Ayastuy, Rosita Uribarren, Mari Kar-

men Llodio, Purita Otxoa, Nati Iria, Juanita Abarrategi, Feli Castillo, Maribi Oroben- goa, Joaquina Leibar, Begoña Eriz, Trini Barandiaran, Arantxa Leibar.

Urtea: 1945.

Argazkia: Ikerne Altube.

Informazioa: Ikasle batek.

Casa Ceciaga

Maalako Arrabala, 3
ARRASATE
Tel.: 79 12 62

**Haratuzte hauetan
ere bertan aurkituko
duzu mozorro eta
osagarri egokienak.**





4 errealitate

erronka

1

Deba Garaian etorkizuna eraikitzen

almen
san frantzisko xabier
san viator
umezaintza

MATRIKULA
ZABALIK
otsailaren
17tik 28ra arte

zatoz ezagutzera

- zuk eraiki duzun eskola: ikastola
- guraso, langile eta erakudeen partaidetza
- etengabeko hobekuntzako konpromezua
- autonomia: beharrei erantzuteko gaitasun osoa

Deba Garaian haur hezkuntzatik unibertsitate mailarainoko eskaintza integrala, propioa eta zabala ematen dakiten zentroak



Hezibide bailarari hezkuntz
egitura kooperatibo aberatsa
ematen dion elkarte



sofa
leku

centro
hogar
MUEBLES



a, eme... interiores



Estilo
guztietako altzariak
aurkituko dituzu
gure dendetan.

Zatoz, eta zuk
aukeratu!!

grupo



Amuebladora
Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 79 15 03
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 77 14 92
sofa leku, Zigarrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tfnoa: 77 14 92